

## GUÍA DOCENTE

2015/16

### Centro

135 - Facultad de Educación y Deporte. Sección Ciencias de la Actividad Física

### Ciclo

Indiferente

### Plan

GDEPOR10 - Grado en Ciencias de la Actividad Física y del Deporte

### Curso

4º curso

## ASIGNATURA

25782 - Komunikazioa Euskaraz: Jarduera Fisikoaren Eta Kirolaren Arloa

**Créditos ECTS :** 6

## DESCRIPCIÓN Y CONTEXTUALIZACIÓN DE LA ASIGNATURA

Ikasketa planen helburuetan zehazten den bezala, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Graduko ikasleek arlo hauetan aritzeko gaitasun orokorrak eskuratuko dituzte: hezkuntzan, osasungintzan, kirol eta aisialdian eta kudeaketan. Edozein gizartetan goi mailako tituludunek ardura berezia dute hizkuntza-komunitateari begira. Haiek sortutako testuek eta mezuek hizkuntzaren estandar formala errespetatu behar dute eta egokiak izan behar dira dagokion komunikazio-egoeraren arabera. Horrenbestez, etorkizuneko profesionalak trebatu egin behar dira gauza izan daitezzen hizkuntza-baliabide egokiak erabiltzeko eta euren bizitza akademiko eta profesionalean komunikazio-egoera bakoitzari behar bezala erantzuten jakin dezaten.

Bestalde, euskara hizkuntza gutxitua izanik, ez du oraindik gaztelaniak duen hedakuntza eta erabilera kirolaren eta jarduera fisikoaren arloan zein aisialdiaren esparruan; gure ikasleek, etorkizuneko profesional aditu gisa jardungo duten neurrian, garrantzizko eragileak izango dira euskararen normalizazioan, eta horrenbestez, hizkuntzaren alderdi normatiboak zein pragmatikoak ezagutu behar dituzte. Unibertsitateko Plan Gidariak oso aintzat hartzen du ardura hori eta bere ekarpena egiten du Euskararen Araua eta Erabilera eta Komunikazioa Euskaraz ikasgaiekin.

Komunikazioa Euskaraz ikasgai honek arloko hizkeraren estandarizazioari egin nahi dio ekarpena. Espezialitate eremuko testu akademiko eta profesionalak landuko dira (idatziak edo/eta ahozkoak) ikaslea haien espezifikotasunaz jabe dadin.

## COMPETENCIAS / RESULTADOS DE APRENDIZAJE DE LA ASIGNATURA

Esta asignatura pretende que los alumnos sean capaces de utilizar tanto en el lenguaje escrito como oral, bien sea para la interpretación de bibliografía relacionada con las ciencias de la actividad física y el deporte, bien sea para la realización de textos relacionados con su actividad académica y profesional.

Es necesario tener un conocimiento previo de euskera.

Ikasgai honen helburu orokorra da hizkera estandarraren irizpide eta arauen ezagutza nahikoa eskuratzea eta hizkuntza-baliabide egokiak eskuratzea komunikazio profesionalak eskatzen dituen egoera ezberdinetan ahoz zein idatziz jarduteko. Ikastaroa egiteko gutxienez euskararen oinarritzko ezagutza izan behar du ikasleak.

Hauek dira irakasgai honek jomugan hartuko dituen gaitasunak:

1. gaitasuna: Jarduera fisikoaren eta kirolaren zientzien arloko testu generoak ulertzea, interpretatzea, eta ahoz zein idatziz erabiltzeko gauza izatea, bereziki, haien alderdi komunikatibo eta testualak kontuan hartuta.
2. gaitasuna: Espezialitate arloan ohikoenak diren testuak identifikatzea eta komunikazio-egoeraren arabera ezaugarritzea, bereziki egoera formaletan eta ez-formaletan duten erabileraren arabera.
3. gaitasuna: Espezialitate arloko testu akademiko eta profesionalak testu-generoen aldetik dituzten ezaugarriez eta erregulartasunez jabetzea (iritzi testua, ahozko azalpena, instrukzio-testua &#8230;).
4. gaitasuna: Ahozko zein idatzizko ekoizpenen bidez ezagutza testualean eta linguistikoan sakontzea (edukien planifikazioa, kohesioa, konexio, koherentzia, zuzentasun gramatikala, e.a.)
5. gaitasuna: Kontsulta-tresnak erabiltzen jakitea hizkuntza-baliabideen formari, esanahiari eta erabilerari buruzko informazioa lortzeko, bereziki Interneten eskuragarri daudenak.

6. gaitasuna. Jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko literatura zientifikoa ulertzea, bertako hizkuntzetan eta zientziaren eta teknologiaren esparruan erabiltzen diren beste hizkuntza batzuetan.

## CONTENIDOS TEORICO-PRACTICOS

1. Jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko mintza-jarduna eta komunikazio-eskakizunak:

1.1. Helburuak, komunikazio-egoerak (baldintza fisikoak, mintzaideen ezaugarriak, euskarriak eta baliabideak &#8230;), gaiak, gaien trataera, egoera formalak eta ez-formalak...

1.2. Espezialitateko hizkera ea lexiko sorkuntzarako bideak

2. Iritzia emateko testuak

2.1. Iritzi artikulua

2.2. Debatea

3. Azalpena emateko testuak

3.1. Idatzizko azalpena

3.2. Ahozko azalpena

4. Baliabide informatikoak eta kontsulta-tresnak

## EGITARAU PRAKTIKOA:

&#61607; Komunikazio jarduerak: entzuketa arretatsua, informazioa eskuratzeko irakurketa, jendaurreko azalpena, ahozko elkarreragina, elkarreragin idatzia,...

&#61607; Informazioa eskuratzeko jarduerak: Testu generoen erabilerarekin lotutako Informazioa eskuratzeko jarduerak, hizkuntza lantzeko baliabideak,...

&#61607; Testuak: ikastarorako aukeratuko den testu lagin hautatu baten lanketa, esate baterako, lan-dokumentuak (gutunak, aktak, deialdiak...), txostenak, artikulak, material teknikoak (arauak eta jarraibideak, fitxak...), hedabideetako testuak (albisteak, erreportajeak, iritzi-artikulak, artikulak...), lege-testuak (arauak, ebazpenak...), eta abar.

## METODOLOGÍA

Kurtsoak hertsiki erlazionatutako alderdi teorikoa eta praktikoa ditu. Ariketa praktikoetan oinarrituko dira eskolak bereziki. Ariketa horiek oinarri hartuta emango ditu irakasleak behar diren azalpen teoriko gehienak.

Gelan Campus birtualean Gelatik kanpo

Eduki teorikoen lanketa x x x

Testuen irakurraldiak, eztabaida irekiak x x x

Arazo eta kasu praktikoen ebazpena x x x

Aplikazio ariketak x x x

Talde-lanak (proiektuak, monografiak...) x x

Bakarkako lanak (proiektuak, monografiak...) x x

Jendaurreko aurkezpenak x

Ordenagailuko praktikak x

Eskola magistralak: 30 ordu

Gelako praktikak: 20 ordu

Ordenagailuko praktikak: 10 ordu

Euskarri telematikoa: banakako eta taldeko lanak egiteko

## TIPOS DE DOCENCIA

Tipo de Docencia	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Horas de Docencia Presencial	30		20		10				
Horas de Actividad No Presencial del Alumno	45		30		15				

### Leyenda:

M: Macistral

S: Seminario

GA: P. de Aula

GL: P. Laboratorio

GO: P. Ordenador

GCL: P. Clínicas

TA: Taller

TI: Taller Ind.

GCA: P. de Campo

## SISTEMAS DE EVALUACIÓN

- Sistema de evaluación continua
- Sistema de evaluación mixta
- Sistema de evaluación final

## HERRAMIENTAS Y PORCENTAJES DE CALIFICACIÓN

- Realización de prácticas (ejercicios, casos o problemas) 10%
- Trabajos individuales 50%
- Trabajos en equipo (resolución de problemas, diseño de proyectos) 20%
- Exposición de trabajos, lecturas... 20%

## CONVOCATORIA ORDINARIA: ORIENTACIONES Y RENUNCIA

Ebaluaziorako hiru aukera aurreikusten dira:

A modalitatea: ebaluazio jarraitua (%100)

B modalitate mistoa: ebaluazio jarraitua (%75) + azterketa (%25)

C modalitatea: azkeneko proba (%100)

A modalitatea: Ebaluazio jarraitua. Hauxe izango da ohiko modalitatea. Kasu honetan, ikasleek, azterketa-probaren orde gelan egindako jardueren bidez eskuratu dute kalifikazioa:

Gelan egindako ariketak eta praktikak: %10

Banakako lanak: %50

Talde lanak: %20

Lanen ahozko aurkezpena: %20

B modalitatean ikasleek irakasgaia gelako lanen bidez gainditu ahal izango dute (gehienez,%75), eta azkeneko proban nota hori jasotzeko aukera izango dute (%25). Beraz, ikasle hauen kasuan, azterketa ez da baztertzaileria izango.

Irakasgaia A zein B modalitateetan jokatu ahal izateko ezinbestekoa izango da irakasleak eskatutako lan gehienak (%90) garaiz eta moduan ematea eta horietako bakoitzaren kalifikazioa gaindituta izatea.

C modalitatea: Arrazoi justifikatuengatik eskoletara etortzerik ez duen ikasleak nota guztia jokatuko du azkeneko proban. Proba horren edukiak eskoletan landutako gai eta ariketa praktikoa zein teorikoen inguruan izango da. Ebaluazio-irizpidea hurrengo izango da:

a) E-gelan deskribatuta egongo den banakako lan bat entregatzea: % 30.

b) Ordenagailuko ariketa praktikoa: %10.

c) Amaierako proba idatzia: test erako ariketak eta idatzizko eta ahozko testuen ekoizpena egiteko: %60.

C modalitateko irizpide hauek ohiko zein ez-ohiko deialdietarako erabiliko dira.

Ikasleek aukera izango dute DEAILADIARI UKO. Horretarako, Gradu Ikasketen eta Berrikuntzaren Arloko Errektoreordetzaren araudian zehazten den bezala, eskaria egin beharko diote irakasgaiko irakasleari idatzi bidez eta azterketarako zehaztutako garai ofiziala hasi baino 10 egun lehenago.

Gaitasunak egiaztatzekeo tresna hauek erabiliko dira:

-Parte-hartzea: talde-lanerako gaitasuna, jokabide autonomoa, jarrera aktiboa, ekarpenen kalitatea, eta abar.

-Portafolioa:

-Jomugan hartutako gaitasunak egiaztatzen dituzten zereginak (ahozkoak zein idatziak). Gutxienez gaitasun bakoitzeko bat.

-Azterketa-proba(k).

## CONVOCATORIA EXTRAORDINARIA: ORIENTACIONES Y RENUNCIA

Ezohiko deialdian ikasleak azterketaren bidez eskuratuko du kalifikazioa. Ikastarorako lan monografikoa aurreikusten bada, hura ere egin eta gaindituta izan beharko du behin betiko kalifikazioa eskuratzeko.

## MATERIALES DE USO OBLIGATORIO

Irakasleak E-Gelan eta Erreprografia Zerbitzuan uzten dituenak.

## BIBLIOGRAFIA

### Bibliografía básica

ALBERDI, X. & SARASOLA I. (2001). Euskal estilo libururantz. Gramatika, estiloa eta hiztegia, Bilbo, EHU.

ELORDUI, A. eta ZABALA, I. (2005). "Euskararen normalizazioaren erronka berriak: komunikabideetako profesionalak eta hizkuntzalariak elkarlanean" Mikel Arrieta; María González, Arantza Gutierrez, Idoia Torregarai, Ana Urkiza; Aitor Zuberogitia (ed.) Kazetaritza Euskaraz: oraina eta geroa EHUko Argitalpen Zerbitzua. Bilbo: 375-382

EUSKALTZAINDIA (1986). Maileguzko hitz berriei buruz Euskaltzaindaren erabakiak

EUSKALTZAINDIA (1992-). Euskaltzaindiaren arauak. Bilbo: Euskaltzaindia.

EUSKALTZAINDIA (1992). Hitz elkartuen osaera eta idazkera

GARZIA, J. (2008). Jendaurrean hizlari. Irun: Alberdania.

GUTIÉRREZ RODILLA, B.M. (1998). La ciencia empieza en la palabra. Análisis e historia del lenguaje científico. Ed. Península

GUTIÉRREZ RODILLA, B.M. (2005). El lenguaje de las ciencias Ed. Gredos

HAEE / IVAP (2005). IVAPeko estilo-liburua. HAEE/IVAP. Gasteiz.

IDIAZABAL, I. & GARCIA, I. (ed.), (2007). Ahozko euskara. Azterketak eta irakaskuntza. Bilbo: EHU. (sare-argitalpena: [www.testubiltegia.ehu.es](http://www.testubiltegia.ehu.es)).

IDIAZABAL, I. & LARRINGAN, L.M. (arg.) (1998). Koherentzia, kohesioa eta konexioa: testuratzeko baliabideak.

Hizkuntzaren azterketa eta irakaskuntza, EHU & Gasteiz, Arabako Foru Aldundia.

IVAP (1997). Argiro idazteko proposamenak eta ariketak. HAEE/IVAP. Gasteiz.

IVAP (2003). Galdezka: euskarazko zalantzei erantzunez. HAEE/IVAP, Gasteiz.

konsulta: <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43->

UZEI (1982). Maileguzko hitzak: ebakera eta idazkera

UZEI (1988) Laburtzapenen gidaliburua (siglak, ikurrak eta laburdurak) Elkar. Donostia

ZABALA, I. (2000). "Euskararen zientzia eta teknikarako erabileraren hizkuntza berezitasunak", Ekaia, 12.

ZUBIMENDI, J.R. (2004). Ortotipografia, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

Sareko573/es/contenidos/informacion/dih/es\_5490/adjuntos/estilo\_liburua/ortotipografia.pdf

### Bibliografía de profundización

ALEGRIA, A.; DIAZ DE GERENU, L. & MANTEROLA, I. (2008). "Ahozko komunikazioa. Ahozko diskurtsoa arautzen

du ten osagaiak eta arauak. Ahozko komunikazioari dagozkion estrategiak". I. Garcia & K. Bujan (arg.), Bigarren Hezkuntzako irakasleak. Euskara eta Literatura. Gai hautatuak. Sevilla: MAD.

CABRÉ, M.T. (2002). "Terminologia ala terminologiak? Hizkuntza-espezialitatea ala diziplinarteko alorra?" Uztaro, 40-2002: 63-74 (euskaratzailea: A. Aierbe)

CIAPUSCIO, G.E. (2003). Textos especializados y terminología. IULA. Universitat Pompeu Fabra

CLANCHY, J. & BALLARD, B. (1992). Como se hace un trabajo académico. Guía práctica para estudiantes universitarios. Zaragoza: Prensas Univ. de Zaragoza.

CREME, PH. & LEA, M.R. (2000). Escribir en la universidad. Barcelona: Gedisa.

GARZIA, J. (2005). Kalko okerrak. Vitoria-Gasteiz: EJren Argitalpen Zerbitzua. [on line: [http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/eu/contenidos/informacion/dih/eu\\_5490/estilo\\_liburua\\_e.html](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-573/eu/contenidos/informacion/dih/eu_5490/estilo_liburua_e.html)]

MUJICA, A. (2005) "Hiztegi Batua» eta terminologia zientifiko-teknikoa: elkarguneak, estuguneak eta gurutzaguneak" SENEZ, 28 (2005)

PLAZAOLA, I. & ALONSO, P. (ed.) (2007) Testuak, diskurtsoak eta generoak. Erein. Donostia

VAZQUEZ, G. (arg.) (2001). Guía didáctica del discurso académico escrito: como se escribe una monografía? Madril: Edinumen.

ZUBIMENDI, J. R. & ESNAL, P. (1993). Idazkera-liburua. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

ZUBIRI, I. & ZUBIRI, E. (1995). Euskal Gramatika Osoa. Didaktiker: Bilbo.

### Revistas

EKHUYAR Zientzia eta Teknika  
Ekaia  
Hik Hasi

### Direcciones de internet de interés

[www.gipuzkoa.net/kirolaeuskaraz](http://www.gipuzkoa.net/kirolaeuskaraz)  
Osasungoa Euskaratzeko Elkartea, <http://www.oeegunea.org>  
[www.euskaltzaindia.net](http://www.euskaltzaindia.net)  
[www.hiztegia.net](http://www.hiztegia.net)  
Zientzia eta Teknikaren aldizkaria, <http://www.zientzia.net>  
[www.xuxen.com](http://www.xuxen.com)  
ADMINISTRAZIOKO HIZKERA: [http://www.ivap.euskadi.net/r61-2347/eu/contenidos/informacion/admin\\_hizkera/eu\\_3810/hizkera\\_menu\\_e.html](http://www.ivap.euskadi.net/r61-2347/eu/contenidos/informacion/admin_hizkera/eu_3810/hizkera_menu_e.html)  
AGIRI SOZIOLABORALEN EREDUAK:  
[http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46714/eu/contenidos/informacion/dokumentu\\_soziolaboralak/eu\\_9374/agiri\\_soziolaboralak.html](http://www.kultura.ejgv.euskadi.net/r46714/eu/contenidos/informacion/dokumentu_soziolaboralak/eu_9374/agiri_soziolaboralak.html)  
AZPIDAZKI (Administrazio eta zerbitzuen arloan euskara erabiltzen laguntzeko gomendio, argibide eta baliabideak; EHU):  
[www.ehu.es/azpidazki](http://www.ehu.es/azpidazki)  
CENTRE DE REDACCIÓN: <http://mutis2.upf.es/cr/casjur2005/index.html>  
DUDANET: <http://www.ivap.euskadi.net/r61-v50001x/eu/v50aWar/comunJSP/v50acambioldioma.do?v50aCgaldioma=eu>  
Ekaia  
EKHUYAR Zientzia eta Teknika  
EUSKALTERM (terminologia bankua): [www1.euskadi.net/euskalterm](http://www1.euskadi.net/euskalterm)  
EUSKARA BATUAREN ARAUAK eta HIZTEGI BATUA: [www.euskaltzaindia.net](http://www.euskaltzaindia.net)  
<http://parles.upf.edu/cr/casacd/index.html>  
<http://www.ehu.es/azpidazki/>  
<http://www.ehu.es/ehulku>  
<http://www.euskaltzaindia.net>  
<http://www.hiztegia.net>  
<http://www.xuxen.com>  
Osasungoa Euskaratzeko Elkartea, <http://www.oeegunea.org>  
[www.euskaltzaindia.net](http://www.euskaltzaindia.net)  
[www.gipuzkoa.net/kirolaeuskaraz](http://www.gipuzkoa.net/kirolaeuskaraz)  
[www.hiztegia.net](http://www.hiztegia.net)  
[www.xuxen.com](http://www.xuxen.com)  
Zientzia eta Teknikaren aldizkaria, <http://www.zientzia.net>

### OBSERVACIONES

Ikastaroa egiteko gutxienez euskararen oinarrizko ezagutza izan behar du ikasleak.